

Urpean lurra

Zuhaitzak, ametsak eta mapak

Laburpena

2003an Itoizko urtegiaren eraikuntzak zazpi herri eta hiru natura-erreserba urperatu zituen. Urpean lurra izeneko film bategitenarida Maddi Barber zinemagilea urpean galdutako espazioaren inguruan. Testu honetan bertan agertzen diren elementuen inguruan hausnartzen du.

Gako-hitzak: memoria, ametsak, zinema, lurraldea, paisaia

Abstract

In 2003 the construction of Itoiz dam flooded seven villages and three nature reserves. Filmmaker Maddi Barber is making a film about the space lost under the water of the reservoir. In this essay she reflects on different elements of the film.

Keywords: memory, dreams, film, environment, landscape

Maddi Barber
Zinemagilea



Bidaltze data: 2019-03-29
Onartze data: 2019-05-04

Nafarroako Pirinioetako maldetan Itoizko urtegiak zazpi herri eta hiru erreserba natural urperatu zituen 2003an. Egun, 592 metroko kotak espazioa bitan banatzen duen lerro horizontala marrazten du urtegiaren paisaian. Urtegiaren kota maximoa da. J-k behin esan zidan heriotzaren eta bizitzaren arteko muga zela 592 kota, hortik behera zegoen guztia hiltzera zigortuta zegoela. Film bat errodatu dut zonaldean eta urtegiaren planoak barboz beteta daude. Ura bizitzaren oinarria dela esan dit I-k eta bailara urez bete digute. Lekua ez da ezabatu edo hil, bortitzagoa den zerbaite gertatu da: urpean geratu da.

Espazio bat urperatzean, non geratzen da? Itoitzen, urak lurraldea ukatzea ekarri du, hura habitatzeko aukera galdu da. Hala ere, bertako biztanleok betidanik ezagutu ditugun toki zehatzak espazioan kokatzeko gai gara. Lurraldearen topografia imajinatu dezakegu uraren azpian: hor zegoen ibaia, hor zubia, hor herria. Eta eskuarekin ura seinalatzen dugu. Makal baten punta uretan begizatzean bizilagunaren soroan zegoen makala zela antzematen dugu edo Elke mendia erreferentzia moduan hartzen dugu distantzia kalkulatzeko. Artozki 550 metroko kotan zegoen, Itoitz 523 metrotan. 42 edo 69 metro ur, metrotan neurtzen dugu leku horietatik banatzen gaituen distantzia.

Ametsak dirudite fisikoki bueltatzeko modu bakarra. I-k kontatu zidan lehen ametsa. Hegan zihoan arrano baten moduan Gazteluko arrolatik. Bere azpian dena lehen bezala zegoen: Artozki herria, ibaia, zelaiak, Usozko presa txikia, ur-jauzia, «peñón» deitzen genion harkaitza, zubi zintzilikaria,

errepidea, Itoitz herria... Geroago besteen ametsak etorri ziren: A-k urtegiaren presa birrintzeko ekintzekin amesten du maiz, N-k eta K-k haiengana olatu izugarri bat datorrela amets egin dute. N-ren ametsen olatuak bidean dagoen guztia suntsitzen du. Zuhaitzak erortzen dira uraren indarrarekin, mendiak desegin. Zerbait kolektiboa dela susmatzen hasi naiz. Proiektuarekin hasi nintzenetik izan ditut ametsak nik ere. Bat bereziki gogoratzen dut. Ametsen urtegiaren bazterrean gerturatzen naiz kotxez. Ur-ertzerara heldu eta errepideak uretan jarraitzen duela ikusten dut. Arratsaldea da eta argi ederra dago. Ur-gainazalari arretaz begiratzen diot eta konturatzen naiz eguzki-izpiek uretan jo eta barrura segitzen dutela. Eguzki-izpiei begiradarekin jarraituz sakonean bailara agertu zait. Erdian, soroz inguratuta, Irati ibaia, oraindik mugimenduan urtegiko uren azpian.

R-k Alemaniako hirugarren Reichen Charlotte Beradt (1968) kazetariak egin zuen ikerketa baten inguruan hitz egin dit. Beradten helburua nazismoak alemaniar gizartean eragin zuen ondorio emozional suntsitzailea erakustea zen. 300 amets baino gehiago bildu zituen. Ametsak banakotasunean geratzen badira ere, kolektiboak eta politikoak ere badirela erakusten du ikerketak; momentu historikoari, memoriari eta espazioari izatez lotuak. Itoitzen inguruan filmerako bildu ditudan ametsak horrelakoak dira ere; ezinegon kolektibo baten adierazleak, min komun baten seinale. Erresistentzia-puntuak direla iruditzen zait: egunez jakin badakigu leku horiek habitatzeko ezinezkoa dela; gauez, ordea, denbora

- 1.irudia ~ *I amets bat kontatzen.*
- 2.irudia ~ *Zuhaitz bat urtegian.*
- 3.irudia ~ *J Artozkiko mapa seinalatzen.*


Egilea - Maddi Barber.



eta espazioaren logika guztiz desegin daiteke, Irati ibaiaren korrontekak bailara zeharkatzen jarraitu dezake urtegi uraren azpian.

Ametsek, memoriak eta zinemak badute zerbait komunean. David Macdougall (1992) antropologoak filmen, memoriaren eta ametsen arteko antzekotasun harrigarriari buruz idatzi du. Irudiak, sentsazioak, soinuak, hitzak, ahotsak modu zatikatuan agertzea konpartitzen dute. Baina oroitzapenak edo ametsak zinemaren bidez adierazteak berezko arazo bat sortzen du: adimenaren paisaia, bere irudiak eta logika sekuentzialak ez daude ikusgai. Nola erabili zinemak berezkoak dituen ikus-entzunezko ezaugarriak hori irudikatzeke? Esperientzia oro adierazteak itzulpen bat dakar, eraldaketa bat. Hitzen bidezko esperientziaren kontakizun zuzena egitea erabaki dut nik. Muntaiaren bidez denbora desberdinetan hartutako irudiak harremanetan jarri ditut filmean, borroka-garaiko artxibo-irudiak eta gaur egungoak lurraldearenak. Denbora eta espazioaren logika ere nahasi egiten da muntaian.

Pasa den urtean hartutako irudi batean zuhaitz bat agertzen da. Zuhaitzaren beheko partea uretan sartuta dago. Muntatzerakoan «iceberg» izendatu ditugu enborra urperatuta duten zuhaitz hauek, goiko partea bakarrik ikusten badugu ere, ur azpian zegoen luraren aztarnak direlako. Cesar Soutok eta Luis Avilesek zuzendutako *Os días afogados* (2015) filma etorri zait burura. Galizian urtegi baten inguruan egindako dokumentala da. Momentu batean emakume heldu baten testigantza jasotzen du filmak: «Es triste, yo preferiría que se llenara y que no bajara más [el agua]. Así no vería y no habría recuerdos ni nada, pero está bajando y subiendo...». Uraren jaitsierarekin batera urtero bueltatzen dira oroitzapenak Ourenseko biztanleengana. Itoitzen ere, urtaro lehorretan agertzen da urperatuta dagoen espazio bat, 592 metroetatik behera ezkutatuta geratu dena. 2017an hainbeste jaitsi zen ura, ezen azaleratu baitziren urperatutako soroak, zubiak, bideak, etxe eraitsiak... guztiak mantu zuri batez estaliak. Orduko argazkietan ikusten da urak lurraldea apurka higatu duela. Zuhaitzak erori dira. Bideak lohiaz bete dira. Errepideak zatitu dira. Irati eta Urrobi ibaien bidea desagertuz doa. Euriekin batera berriro estaliko da dena.



Google mapsera jo dut lokalizazio bila. Sateliteko bistatik mapara aldatu dut interfazea. Urtegiaren ur urdin argiaren gainean zoom egitean errektangulu zuriz osatutako marrazkia agertu zait pantailan. Segundo batzuk kostatu zait ulertzea Artozki herria zenaren mapa baten aurrean nagoela, urtegiaren uraren erdian. Herria 2003ko irailean bota zuten. Ur azpiko zenbait errepide aurkitu ditut geroago. Aurkikuntzaren inguruan espekulatzen ibili naiz. Satelite-kamerak detektatzen al ditu uraren azpian dauden eraikuntzen hondarrak eta gero algoritmo batek erabakitzen du forma hori etxe bati dagokiola? Bi garaietako mapak gainjarri dira? Edo ziberaktibismoan dabil norbait? Zalantzarekin geratzea erabaki dut. Oraingoz ederragoa suertatzen zait pentsatzea mundu digitalak ere memoria bat daukala, datuak metatu egiten direla eta espazio bat urperatzen badute ere, nonbait jarraitzen duela. Digitalki hori guztiz ezabatzea ezinezkoa dela, gudan lurralde hori ezabatzea ezinezkoa den moduan. Beti izango direla zirrikituak: zuhaitzak, ametsak, mapak.

===

Bibliografia

- Beradt, C. (1968): *The Third Reich of Dreams*, Quadrangle Books, Chicago.
- MacDougall, D. (2006): *The corporeal image: Film, ethnography, and the senses*, Princeton University Press, Princeton.

Filmografia

- Avilés, L. & Souto, C. (2015): *Os dias afogados*, Amanita Films, Lugo.